



# 2022

## Elkarrekin indartsuagoak gara



2022KO JARDUEREN MEMORIA



@aspanovas

# Aurkibidea



**Aurkezpena**



**Ez gara gelditu**



**Gure familiak**



**Gure  
lana**



**Nerabeen  
taldea**



**Hezkuntza arreta eta  
ikastetxeentzako laguntza**



**Aisialdiko jarduerak  
familian**



**Sentsibilizazio  
kanpainak**



**Enpresen  
laguntzarekin**

# Aurkezpena

Azken urte hauetan, ASPANOVASen egunerokotasuna, gainerako gizartearena bezala, izugarri baldintzatu du pandemiak. 2021aren amaierak nolabaiteko susperraldia iragartzen zuen, eta zorionez 2022ak beti izan dugun jardueraren eta ilusioaren zati handi bat itzuli digu.

Ospitalean tailer terapeutiko asko berreskuratu badira ere, oraindik bidea dugu egiteko, ospitaleko interbentzioa ez baita % 100ean osatu. Baikorrak gara, eta espero dugu 2023rako ospitalean gehiago egoteko aukera izatea; familiek gehien behar gaituzten lekuan.

Errealitate horri aurre egitea ez da batere erraza izan ASPANOVASentzat. Jakin badakigu familiek gertu behar gaituztela, eta hurbiltasunetik ezin laguntzea oso zaila izan da talde osoarentzat. Hala ere, positiboarekin geratzen gara. Derrigorrezko geldialdiari esker, familiei une bakoitzean behar dutena eskaintzeko modu berriak aurkitu eta martxan jarri ditugu.

2021ean gure egoitza Gurutzetako Ospitaletik 5 minutu eskasera lekualdatu izanak aukera handia eman digu familientzat irisgarriago egoteko eta, horrela, harrera eta haien premiei erantzutea arintzeko. Gainera, familiei asko erraztu die gure harrera-etxebizitzan ostatu hartzea. Etxebizitza hau beti egon da irekita, gure egoitzatik 500 metrora baitago.

Nabarmendu beharreko berritasun gisa, aurten nerabeen laguntza-taldeetan eta dolutaldeetan jarri dugu arreta. Talde horiek seme edo alaba bat galdu duten nerabeei eta gurasoei espazio bat eskaintzeko sortu dira, esperientzia bera bizi izan duten beste familia batzuekin bizipenak eta sentimenduak partekatzeko.

Ezin ditugu gure boluntario eta laguntzaileak ahaztu. 2022an sentsibilizazio eta elkartasun ekitaldi ugari gozatzeko aukera izan dugu. Bi urteren ondoren, kasu askotan, berriz elkartu gara, eta haien konpainiaz gozatzea oso berezia izan da. Pertsonen elkartasuna eta maitasuna hain modu bizi eta hurbilean berriro sumatzea benetako luxua izan da.

Zalantzarik gabe, esan dezakegu 2022a ilusioz eta itzuleraz betetako urtea izan dela, eta horrek erakutsi digula, are gehiago, ASPANOVASen misioa eta izateko arrazoia balioesten, familiak zaintzen, beren bizitzak bat-batean aukeratu ez duten errealitate batean murgilduta dauden unetik. Hori guztia erakunde, fundazio, osasun-talde, boluntario eta abarren konpromiso, inplikazio eta elkartasunari esker. Zuek gabe ez zen posible izango.

ESKERRIK ASKO!

# Aspanovas

ASPANOVAS, minbizia duten haur eta nerabeen gurasoen Bizkaiko elkarte 1989an sortu zen, adingabe bati minbizia diagnostikatzen zaionean asistentziaren eta osasunaren arloan dauden premia eta gabeziei erantzuteko.

Gaur egun, hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiegu familiei, eta programa eta ekintza ugariren bidez laguntzen diegu. Gure lana adingabeen eta haien familien egoera medikoa, psikologikoa, asistentziala, hezkuntzako eta aisialdikoa hobetzea da, gaixotasunaren prozesu osoan haien beharrak kontuan hartuz.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak funtsezkotzat jotzen ditugun lau arlotan oinarritzen dira: ospitaleetako eta ospitaleez kanpoko arloa, arlo psikologikoa, gizarte-arloa, aisialdi-arloa eta hezkuntza-arloa.

## GURE IBILBIDEA

- 1989** ASPANOVAS sortzen da
- 1991** Familientzako arreta Psikologikoko zerbitzuaren hasiera
- 1992** Minbizia duten umeentzako lehen udalekuak
- 1993** Boluntarioak ospitalean dauden familiak bisitatzen hasten dira
- 1994** Adingabeen zaintzaileentzako elikadura dieten zerbitzua sortzen da
- 2001** Familiei gizarte arreta zerbitzua eskaintzen hasten gara
- 2008** Jarduera terapeutikoak egiten hasi ginen GUOko Onkologia Pedriatrikoko Unitatean
- 2017** Arreta Pedagogikoko Zerbitzua martxan jartzen dugu minbizia duten haur eta nerabeentzat eta haien gurasoentzat
- 2018** Bi tailer berri eskaintzen ditugu: Atsedeen tailerra eta Trebetasun Sozialen eta Baliabide Pertsonalen Tailerra
- 2019** ASPANOVAS-en 30. urteurrena ospatzen dugu
- 2021** Egoitzaz aldatu gara, familiengandik hurbilago egoteko
- 2022** Nerabeen taldea sortzea.

## Misioa

Minbizia duten haur eta nerabeei eta haien familiei arreta integrala ematea gaixotasunaren fase guztietan.

Eragindako familien bizitzaren alderdi guztiak normalizatzea.

Minbizia duten haur eta nerabe guztien eta haien familien bizikaltatea hobetzea.

Minbizia duten adingabe guztientzat eta haien familientzat baldintza-berdintasuna sustatzea, kalitatezko osasun-, gizarte- eta hezkuntza-arreta eskuratzeko.

Bizkaiko gizartea hauren minbiziaren arazoaz kontzientziatzea eta sentsibilizatzea.

## Ikuspegia

Gizarte-boluntarioritza bultzatzea.

Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea hauren eta nerabeen minbiziaren esparruan, gure lana indartzeko eta aliantzak bultzatzeko hainbat erakunde eta enpresarekin, gure familiei arreta integrala eman ahal izateko.

Minbizia duten haur eta nerabeen familiei laguntzea, gure laguntza-programa eta -zerbitzuen bidez.

Hauren eta nerabeen minbiziaren inguruko sentsibilizazioa eta zabalkundea sustatzea.

Minbizia duten haur eta nerabeen eta haien familien eskubideak eta premiak eskatzea eta defendatzea erakunde publikoen eta gizartearen aurrean.

Familiei laguntzea gaixotasunaren fase guztietan.

## Balioak

Minbizia duten haur eta nerabeen eta haien familien eskubideak eta beharrak defendatzeko **konpromisoa**, arreta integral egokia lortzeko.

**Aukera-berdintasuna**, pertsona guztiei bidezko tratua emanez.

Eguneroko bizitzako eta elkarteko esparru eta **jarduera** guztietan sartzea, minbizia duten adingabeen garapena eta potentziala erraztuz.


Minbizia duten haur eta nerabeekiko eta haien familiekiko **errespetua eta enpatia**.

**Gardentasuna eta jardunbide** egokiak elkartean eta haren baliabideen kudeaketan.

Elkarrekiko **elkartasuna**, gizartean indartu eta desberdintasunak minimizatzeko balio gisa.

# Taldea

"Beste familia batzuei laguntzen dieten familiak"



## BATZAR NAGUSIA

Batzar Nagusia da elkartearen oinarrizko organoa. ASPANOVASeko guraso eta bazkide guztiek osatzen dute. Elkartearen egiturarekin eta funtzionamenduarekin lotutako erabakiak biltzarrean hartzen dituztenak dira.

## ZUZENDARITZA BATZORDEA

ASPANOVASeko zuzendaritza-batzordea minbizia duten haurren eta nerabeen gurasoek osatzen dute. Ekintzak eta proiektuak gidatzen ematen dute denbora, diagnostikatutako familia berriak babestu eta indarberritu ahal izateko laguntza-sare bat eraikitzeko. Lehendakari batek, diruzain batek, idazkari batek eta hiru batzordekide osatzen dute.

**Lehendakaria:** M<sup>a</sup> José Martínez

**Diruzaina:** Janire Barrio

**Idazkaria:** Unai Alaña

**Batzordekideak:**

-M<sup>a</sup> Ángeles Sanz

-Xabier Leizea

-Juan Carlos Fernández

## TALDE TEKNIKOA

Lantalde teknikoa ASPANOVASek eguneroko lana egiten duen lan-arloetako pertsonak osatzen dute. Horiek dira gure programak abian jartzeko eta garatzeko arduradunak. Koordinatzaileak zuzentzen du taldea, eta bere lana gidatzen du, Zuzendaritza Batzordeak eta Bazkideen Batzarrak ezarritako jarraibideak kontuan hartuta.

**Koordinazioa:** Ainhoa Fernández

**Administrazioa:** Joana Mallea y Alba Ortiz

**Arreta psikologikoa:** María

Jesús Nicuesa

**Gizarte Arreta:** Naiara Arrieta y

Leire Garmendia

**Komunikazioa eta ekitaldiak:** Maitane Rodríguez

# Ez gara gelditu!

TElkartasunezko jarduerak eta ekitaldiak egiteko ia aukerarik izan ez den bi urteren ondoren, enpresék, erakundeek, elkarteek eta abarrek minbizidun adingabeen familiak zaintzen eta laguntzen jarraitu dute.

2022an zehar, ekimen solidario ugari egin dira, honako helburu hauekin: haurren minbiziaren problematika gizartera hurbiltzea eta erakustea, estigmak ezabatzea, gaixotasunaren ikuspegi errealagoa lortzea, desberdintasunak suntsitzea, kausarekin enpatizatzea, ASPANOVASen egunez egun egiten dugun lana ezagutaraztea eta, jakina, familiei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak finantzatzen laguntzea.

2022an egin diren ekimenak eta ekitaldiak:

**URT**

Josketa solidarioko tailerra Getxon.

**OTS**

Haur Minbiziaren Nazioarteko Eguna.

**MAR**

Aspanovas Bilbao Bizkaia 10k.

**API**

Jarrilleros txapelketa solidarioa.

**MAI**

Haurtzaro ospitalizatuaren eguna, Martxa zikloturista, “Dona Médula, dona Vida” - Alde Zaharreko Txirrindulari Elkarte, Elkartasun Lasterketa, III. Eclipse Dantza Solidarioaren Jaialdia - SKAE 2022.

**EKA**

Alakranes del Norte elkartasun ekitaldia, Elorrieta KE Elkartasun Txapelketa, Gertasport- FutbolFesta Iurreta.

**UZT**

Agertxo Pirata 2022, Milla solidarioa - Bihotz Aratz Atletismo Kluba, Plentzia-Mungia Igeriketa Kluba, Dastatuarte Paella solidarioa, Almudévar Nerabeen Topaketa Nazionala (Huesca).

**IRA**

Piztu Itxaropena kanpaina, “Mi Estrella Viajera” ekitaldi solidarioa, Discgolf ekitaldi solidarioa (Discgolf), Artziniega 750 - Aiala Txirrindulari Elkarte.

**URR**

“Carrera Mujer Coraje” Bihotz-Aratz, “Oasis de Esperanza” erronka solidarioa- Bendita Locura, V. Galipa Swim igerian zeharkaldia.

**AZA**

Berriotxoa ikastetxeko ate irekien jardunaldia.

**ABE**

Zuazo Ikastetxe Publikoaren jaialdi solidarioa + “Neguko distirak” kontzertu solidarioa-BM Supermerkatuak eta Bilboko Koral Elkarte, Minbizia duten haurren Eguna Nazionala + Tren maketen erakusketa solidarioa-Agrunorte, Eskubaloien Eguna - “Mi estrella Viajera” Muskiz - Muskizeko Eskubalo Kluba.

Ekitaldiez eta jardueraz gain, pertsona anonimoez, elkarteek, fundazioek, ikastetxeek eta abarrek beren aletxoak jarri nahi izan dute dohaintzen bidez, dirua bilduz, produktu solidarioak oparitzuz gero saltzeko, eta abar.

**Arcos de Quejana hotela, Arratzuko Herria, Berriatuko Herri Ikastetxea, Bissap, Elkartasun Begiradak taldea, KNAFF, Larrea Jauregia, San José Carmelitas (Santurtzi), Uda Bilbao, Udalekuak Portugaleta.**


ESKERRIK ASKO!



## Gure familiak

Bizkaian, minbizia duten adingabeen osasun-arreta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Hematologia eta Onkologia Pediatrikoko Unitatean zentralizatzen da.

ASPANOVAS funtsezko pieza da familia horiei arreta integrala eta diziplina anitzekoa emateko; zaintza horiek, bestela, familiek nekez eskuratuko lituzkete. Diagnostikoa egiten den unetik zaintzen eta laguntzen ditugu familiak, gaixotasunaren fase guztietan: diagnostikoa, tratamendua, erremisioa, gaixoberritzea, dolua, etab.



## 2022ko egoera



## Jarduera-eremuak



Guruzetako Unibertsitate Ospitalea (HUC)



ASPANOVASen egoitza

## Gure lana

2022an, gure izateko arrazoiak bultzatuta, familiak zaintzen eta laguntzen jarraitu dugu, gertutasunetik, maitasunetik eta enpatiatik, gaixotasunaren etapa guztietan. Eguneroko laguntzari esker, ASPANOVAS familia osoari une bakoitzean behar duen arreta integrala funtsean errazten dion tresna bihurtzen da.



## Gizarte arreta

ASPANOVASek gizarte-arloan esperientzia handia duten langile espezializatuak ditu, gaixotasunaren fase guztietan haurrei, nerabeei eta haien familiei laguntzen dietenak. Gure taldeak laguntza ematen du Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen ondoan dagoen elkartearen egoitzan, administrazio publikoarekin, beste erakunde batzuekin eta HUCrucesekin koordinatuta.

Zerbitzu honek etengabeko laguntza eskaintzen die familiei, diagnostikoa egiten denetik eta gaixotasunean zehar; familia-unitatearen beharrian eta gabezia sozial eta ekonomikoak baloratzen ditu, horiek estaltzen dituzten baliabideak bilatzeko; baliabide pertsonalak eta familiakoak behar bezala kudeatzen laguntzen die; elkartearen barruko eta kanpoko baliabideak familietara iristea errazten du, eta familien eta erakundearen arteko lotura sendotzeko lan egiten du.

2022an egindako datuak eta ekintzak:

### Izaera sozialeko laguntzak



familietikiko  
esku-hartzeak  
281



Familia  
onuradunak  
121



Zaintzaileak  
121



Familia  
hasiberriak  
32

### Izaera ekonomikoa laguntzak



Deribazioengatiko  
laguntza  
ekonomikoak  
2



Oinarrizko  
beharrianetarako  
laguntza ekonomikoak  
10



Material  
ortopotesikoaren  
mailegua  
5

## Laguntza psikologikoa


ASPANOVASen arreta psikologikoko zerbitzuak familiei behar duten euskarri emozionala eskaini nahi die, haurren edo nerabeen minbizia beren bizitzan agertzen den une zail horretan.

Zaintza psikologiko eta emozional horri esker, familiek beren emozioak esploratu eta adieraz ditzakete, eta, gainera, adingabeei eta haien familiei egoera berriari aurre egiteko beharrezkoak diren baliabide eta gaitasun propioak ezagutzeko aukera ematen die.

### Egoitzako Arreta



### Dolu-Taldea



### Nerabeen taldea



## Nerabeen taldea

2022an proiektu hau martxan jarri ahal izan dugu, urte asko zeramatzana buruan, ilusio handiz landu dugun proiektua. ASPANOVASeko nerabeen taldea tratamendua jasotzen ari diren edo jaso duten 13 eta 18 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago.

Talde honen helburu nagusia da nerabeei espazio bat eskaintzea, non bakoitzak bere sentimenduak libreki adierazi ahal izango dituen eta bere beharrei erantzun ahal izango dien, besteak beste, tratamenduari, ondorioei, normaltasunera itzultzeari, bizipenak partekatzeari eta abarri dagokienez. Horrela, nerabeek beren baliabideak eta tresnak trukatu ahal izango dituzte, errealitate berrira eta aldaketetara egokitzea errazagoa izan dadin.

“Nerabe taldeak bakarrik ez zaudela ikusten laguntzen dizu, batzuek zuri gertatzen zaizun gauza bera gertatzen zaiola.”

## Zer ekarri dizu nerabeen taldea sortzeak?

A: Niretzat nerabeen taldea nire egoera partekatze modu bat da, ikusita pertsona batzuk gaur egun berdin daudela eta nire sentimenduak primeran ulertzen dituztela. Gainera, pertsona horiek berdinak direla ikustean, ni neu nola sentitzen naizen hobeto ulertzeaz gain, besteak nola sentitzen diren ere ikasten duzu.

Z: Talde honek bakarrik ez zaudela ikusten laguntzen dizu, zuri gertatzen zaizun gauza bera gertatzen zaiola.

## Zer baloratzen duzu gehien nerabeen taldean?

Z: Zu bezala bizitzen ari den norbaitek entzuten zaituela sentitzea.

A: Modu batera edo bestera zurearen antzeko egoeran dagoen jendearekin elkartu. Egia da prozesuak, denborak, tratamenduak eta abar ez direla berdinak guztientzat, baina sentimenduak ez dira aldatzen.

## Nolako jarduerak egiten dituzue?

L, Z, A: Orain dela gutxi hasi gara, baina egin dugu, guztion artean, zer jorratu nahi dugun azaltzen duen ibilbide-orri bat. Orain arte egin ditugun jardueretako batzuk: gure sentimenduak islatzeko marrazkiak, mindfulness, merendola, argazki saioa, hitzaldiak eta abar. Eta egiteke dauden jardueren artean, saskibaloiko partidu bat ikustera joan, zinemara joan, elkartetik kanpo guztiok batera afaldu, txangoak, egoera horretatik igaro diren gazteen testigantza, eta abar.

## Animatuko zenuke beste nerabe bat taldean parte hartzera?

Z, L eta A: Bai, noski! Uste dut positiboa dela talde honetako kide izatea eta horrela bizipenak, sentimenduak eta abar partekatu ahal izatea.



## Dolu-taldea

Ziur asko, hori izango da gure laguntza psikologiko eta emozionaleko programaren jarduera berezietako eta hunkigarrietako bat. Dolu-taldea seme edo alaba baten galera izugarria jasan behar izan duten gurasoek osatzen dute. Familiek beren seme-alaben heriotzaz beldurrik eta taburik gabe partekatze eta hitz egiteko espazio bat eskatzen zuten, eta helburu nagusi horrekin sortu zen talde terapeutiko hori, gurasoek beren esperientzia eta sentimenduak partekatu ahal izateko konfiantzazko espazio bat eskaintzeko eta, horrela, sufrimendua arintzeko, isolamendu-sentsazioa hausteko eta eguneroko egoerei eta egoera berri honen erronkari aurre egiteko estrategia partekatuetatik ikasteko.

Gainera, aurten ere “Recuérdame” topaketa antolatu dugu, nahi baino askoz lehenago utzi gaituzten haur horien bizitza gogoratzeko eta ohoratzeko gunea. Ekitaldia Arcos de Quejanan izan da, gure zuhaitza dagoen tokian: El guardián de los Sueños.



## Hezkuntza arreta eta ikastetxeentzako laguntza

Aurten, pandemiak ezarritako segurtasun-neurrien malgutasunari esker, prestakuntza eta sentsibilizazio tailerrei ekin zaie berriro ikastetxeetan. Gizarte-langile batek eta gizarte-hezitzaile batek osatutako taldeak ASPANOVASeko material pedagogikoa eskaini die ikastetxeei, eta adingabe onkologikoen irakasleei orientazioa eman die gaixotasunak irauten duen bitartean ikasgelan gerta daitezkeen egoerak maneiatzeko.

Tailer horietan haurren eta nerabeen minbiziaren errealitatea hurbildu nahi izan da eskolan, eta ikasleen eta irakasleen inplikazioa lortu.

Gainera, aurten “Alumnado con cáncer. Guía para docentes” gida aurkeztu da; Espainiako Federazioko (FEPNC) Hezkuntza Batzordeak irakasleentzako egindako gida. Gida honek tresna erabilgarria izan nahi du minbizia duten haur eta nerabeak dituzten irakasleentzat, ikasle horiekin eta haien premiekin hezkuntza-arloan esku hartzeko jarduera eta material egokiak eskainiz.

## Ospitale-arloa

Haurtzaroko eta nerabezaroko minbiziaren ondorioz, adingabeen egunerokotasuna eten egiten da, gaixotasunaren, tratamenduen eta ospitaleratzealdien ondorioengatik. Elkartearen eta HUCen arteko akordioari esker, astelehenetik ostiralera tailer terapeutikoak egiten dira Onco-Hematologia Pediatrikoko Unitatean, ikaskuntza, sormena, estimulazioa eta abar sustatzeko. Esku-hartze horiei esker, adingabeek emozioak adierazten dituzte eta haserreak, beldurrak eta larritasunak askatzen dituzte.

Gaur egun egiten diren tailer terapeutikoak, profesional zuzenduak, honako hauek dira:



106 Saioak  
44 Parte-hartzaileak



139 Saioak  
47 Parte-hartzaileak



203 Saioak  
57 Parte-hartzaileak



75 Saioak  
42 Parte-hartzaileak  
\*Tailer hau ez da egin maitatza



348 Saioak  
79 Parte-hartzaileak



176 Saioak  
52 Parte-hartzaileak

## Zaintzailea zaintzeko baliabideak

### HARRERA-ETXEA

ASPANOVASen etxebizitza familien eskura jartzen den baliabide bat da, normalean beste probintzia batzuetatik datozenak, eta beren bizilekutik HUCera joan behar izaten dutenak, semea edo alaba tratatu eta tratamendu onkologiko egokia jaso ahal izateko.

ASPANOVASen etxebizitza familientzako babesleku bihurtzen da, espazio bero eta eroso bat, non ostatu hartzeaz, garbitzeaz, sukaldean aritzeaz eta abarrez gain, familiek atseden hartzeko eta indarberritzeko etxe bat dute seme-alabak ospitaleratuta dauden bitartean.



200 Okupazio egunak  
10 Familiak  
17 Zaintzaileak

## BAZKARI ETA AFARI TXARTELAK



Ospitaleratzeetan seme-alabak zaintzen dituzten gurasoek behar bezala zaindu eta elikatu behar dira, egoera fisikoa ere egokia izan dadin seme-alabak behar bezala zaintzeko. Horretarako, ASPANOVASEk doako bazkari- eta afari-zerbitzua eskaintzen die familiei, ospitaleratutako haur adingabeen zaintzaileentzat.



1537 Bazkari eta afari txartelak  
54 Familia onuradun

## APARKALEKUA

Minbizia duten haur eta nerabeen familiei ekonomikoki laguntzeko, Gurutzetako Aparkalekua S-A.-rekin sinatutako lankidetzahitzarmenari esker, HUCera joaten diren eta/edo bertan dauden familiek doan aparkatu ahal izango dute ASPANOVASen eskura jarri dituzten hiru plazetan.



494 Okupazio egun  
23 Familia onuradun



## PREBENTZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

ASPANOVASen ibilbide luzeari esker, ondo dakigu adingabeari eta haren familiari bigarren mailako ondorioak maneiatzeak dakarren zailtasun gehigarria. Haurren eta nerabeen minbiziaren ondorio ohikoenen artean, trastorno motorrak, arnasketa-sekuelak, muskularrak, hezurak edo neurologikoak eta abar daude.

Horregatik, ospitalez kanpoko eskaintza terapeutiko horren bidez, tratamendutik eratorritako zailtasunak dituzten adingabeek banakako terapiak eskuratu ahal dituzte autonomia eta bizi-kalitatea areagotzeko.

Saio terapeutikoen ospitaleaz kanpoko eskaintza horren barruan honako hauek daude:

Terapia

Fisioterapia

Logopedia

Nutrizioa

## AISIALDIKO JARDUERAK FAMILIAN

Minbizia duten adingabeen arteko bizikidetza eta esperientzia-trukea da "Aisialdiko jarduerak familian" programaren oinarri nagusia. Gainera, balioak indartzen eta finkatzen dira, eta egonkortasun emozionala ematen dute, gaixotasuna ahalik eta ondoen jasaten laguntzeko.

2022an berriro ekin zaio programa honi, eta familiak batu dira, gaixotasunaren prozesutik deskonektatzeko eta beren esperientziak beste adingabe onkologiko eta familiekin elkarbanatzeko.

Zalantzarik gabe, Biobizz-en laguntza funtsezkoa izan da programa honen itzulera. Urte hasieran, ASPANOVAS & Biobizz proiektua jarri zuten abian. Proiektu horren bidez, naturarekin harremanetan dauden eta haur horien eta haien familien ongizatearekin zerikusia duten hainbat jardura egin dira.

Antolatutako jarduerak:

- Bitxos Maruri-ra txangoa. Hegazti harraparien ikuskizuna eta bisita (Biobizz).
- Paddle Surf (GoazenUp) eta itsasontziz txangoa Plentziako badian. (Biobizz).
- Arrigunagako hondartza garbitzeko topaketa. (Biobizz)
- Mendira irteera 4x4an (Euskadi 4x4 Reskate y Ayuda).
- San Mamesera irteera Athleticen partidaz gozatzeko.
- Surf klaseak La Salvaje hondartzan Berasaluce Surf Eskolaren eskutik.
- Bilbao Arena-ra irteera Bilbao Basketen partidaz gozatzeko



142 Menores  
128 Adultos

# Komunikazioa

Aurten, komunikazio-arloan ASPANOVASen lana eta, beraz, izateko arrazoia azalera zentratu da: egunero laguntza integrala ematen dugu eremu desberdinetatik minbizia duten haur eta nerabeen familiekin, ospitalean zein ospitaletik kanpo.



2187



5388



156



785

Komunikabideek funtsezkoak dira elkarteko behar eta mezuen zabalkundean. Gure lana gizartera zabaltzeko eta gure lana ezaguna izateko, komunikabideekiko harremana funtsezkoa da.



AGERPENAK

94



KOMUNIKABIDEAK

38

# Sentsibilizazio Kanpainak

## HAUR MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA - OTSAILAK 15

### “Biziraupen hobea egon daiteke”

2022an minbizia duten adingabeentzako bizi-kalitate hobea eskatzen jarraitu dugu, “Biziraupena hobetzea posible da” lelopean. Aurten ere, egun berezi honekin batera kanpaina hau ikastetxeei helarazi nahi izan zaie; manifestua partekatzeaz gain, Bizitzaren Zuhaitza (El Árbol de la Vida) sortu dute.

Gainera, ASPANOVASeko familia batzuk, Barakaldoko Udala bezalako erakundeetako arduradunekin batera, 2021ean landatu genuen gereziondoaren inguruan bildu ginen, Gurutzetako Ospitaleko Plazan, gure Bizitzaren Zuhaitzik berezienean.



## OSPITALIZATUTAKO HAURREN EGUN NAZIONALA- MAIATZAK 13



Ospitalizatutako haurren Egun Nazionalan, ospitaleratutako haur eta nerabeek globoflexia tailer bat izan zuten. Gainera, David-ek bere pertsonaia gustukoaren puxikadun figura oparitu zion ume bakoitzari.

## ERRUGBI MUINAREN DOHAINTZA

### Orain zuk duzu baloia, BULTZA! Hezur Muina eman!

Bilbao Rugby Unibertsitate Klubak eta "La Guarida" k muin-dohaintzaren garrantziaz kontzientziatu nahi izan dituzte herritarrak. "Orain baloia duzu, bultza! Hezur Muina eman! Ielopez, mota guztietako taldeek bat egin nahi izan dute kanpainarekin. ASPANOVASEk bat egiten du kanpainarekin: «Guk ere bultza egiten dugu!».



## HAUR MINBIZIAREN SENTSIBILIZAZIO HILABETEA

Irailean, Haur Minbiziaren Sentsibilizazio Hilabetea ospatu da, Piztu itxaropena kanpainaren bidez. Aurten, gainera, #Menostipicos ekimenarekin bat egin dugu, haurren minbiziaren inguruan dauden estereotipoekin amaitzeko.



## MINBIZIDUN ADINGABEEN FAMILIEN ALDEKO KM-AK



Aurten, minbizia duten adingabeen familien aldeko kilometro solidarioen 1. edizioa egin dugu. Guztira 27.163km solidario batu dira erronken, torneoen, zeharkaldien, futbol partiduen, eskubaloiairen, saskibaloiairen, errugbiaren, martxen, lasterketen eta abarren bidez.

# Hurrengo enpresen laguntzarekin

## ENPRESAK, ERAKUNDEAK, FUNDAZIO LAGUNTZAILEAK

ASPANOVA Sentzat oso laguntza garrantzitsua dira gure lana babesten duten enpresak eta erakundeak, gure laguntza-proiektuak erabat edo partzialki babestuz. Familiei aspaldidanik eskaintzen dizkiegun zainketei jarraipena emateko funtsezko babesa.

### ERAKUNDE PUBLIKOAK

Abanto-Zierbenako Udala, Amorebietako Udala, Basauriko Udala, Derioko Udala, Elorrioko Udala, Galdakaoko Udala, Gorlizko Udala, Sopelako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

### ENPRESAK

CF Somorrostro, Eroski, Laboral Kutxa, Lancor, Maier, La Caixa Gizarte Ekintza eta Gorlizko Damen Patronatua, Rural Kutxa eta Sacyr.

### FUNDAZIOAK

FarmaSolidaria, EDP Fundazioa, Mikel Uriarte Fundazioa, Susana Monsma Fundazioa.

## KOLEKTIBOAK ETA ERAKUNDEAK

Kolektiboek eta erakundeek etengabeko lankidetzaren harremana dute, haurren eta nerabeen minbiziari buruz urteko 365 egunetan ikusarazten eta sentsibilizatzen lagunduz.

Aurten ere, honako hauen babesa izan dugu:

Colegio Oficial de Médicos de Bizkaia  
Gorka Zulueta Fotografía  
Hospital Universitario de Cruces  
Lorea Espada  
Sociedad Coral Bilbao  
Club Atletismo Bihotz Aratz



## Talde lana

Gure familien eskubideak aldarrikatzeko lankidetzeta eta laguntza guneak sortzeko, ASPANOVAS hainbat elkartetako kidea da:

1997tik, ASPANAFOArekin - Araba eta ASPANOGI- Gipuzkoa- rekin batera, ASPANOVAS eta EAEko bi elkarte horiek osatzen dute UMEEKIN, Minbizia duten Haurren eta Nerabeen Gurasoen Euskal Federazioa, Euskadin minbizia duten adingabeen familien alde eta haintzat lan egiten duena.

ASPANOVAS Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioko kidea da. Gaur egun, 22 elkarte osatzen dute, eta helburu bera dute: minbizia duten adingabeen bizi-kalitatea hobetzea.

ASPANOVAS FEKOOReko kidea ere bada, Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazioa.

Era berean, BIZIPOZAKo kide ere bagara, eta gai bereziak ikusarazteko lan egiten dugu, haurrak eta helduak euskararen bidez sentsibilizatuz.

Azkenik, boluntarioritza eraldatzaile eta kalitatezkoa sustatzeko asmoz, BIZKAIA GARAREN



## Egin zaitez bazkide!

Informazio gehiago [www.aspanovas.org](http://www.aspanovas.org) -en, 944 110 556 telefonoan, edo **ASPANOVAS**-en goitizan

Informatuta egoteko, jarrai gaitzazu gure Sare Sozialetan. Ez duzu ezer galduko!

## Boluntariotza programa

Boluntarioen lana funtsezkoa da ASPANOVASek garatzen dituen programak, jarduerak eta ekintzak aurrera eramateko. Boluntarioek eskuzabaltasunez parte hartzen dute beren denbora, ezagutza eta esperientzia eskainiz.

Aisialdiko eta sentsibilizazioko jardueren itzuleraren ondorioz, 2022an 37 boluntario berri batu zaizkio ASPANOVASen familiari, guztira 133.



## Testigantzak

### ITXASO ALKORTA - Urte eta erdi boluntario gisa. Santurtzi

“Beti itzuli naiz etxera irribarre batekin eta familia handi bat diren pertsona talde bati laguntza eman izanaren pozarekin. Ahal dudan neurrian laguntzen jarraituko dut, beti ondorio berera iristen bainaiz: ematen dudana baino askoz gehiago jasotzen dut, nik aletxo bat jartzen dut, eta mendi bat jasotzen dut trukean, maitasunez eta ilusioz betea.”

### DAMIÁN SÁNCHEZ - Lau urte boluntario gisa. Alonsotegi.

Haur onkologiko baten aita naiz, orain 30 urte dituen. 65 urterekin, jarduera amaigabeak egiteko aukera izan dut, baina boluntarioa izatea ezin da hitzez azaldu. Aspanovaseko ekitaldi batean parte hartzeko aukera dudan bakoitzean sentitzen dudana poza eta emozioa... Elkarteari ikusgarritasuna ematen laguntzea eta ekitaldietan laguntzea, familia horiei guztiei laguntzen jarraitzeko dirua biltzeko... Bizitza osoan egin dudana ekintzarik onena da!

## Baliabide ekonomikoak

ASPANOVASek modu eraginkor eta arduratsuan erabiltzen ditu jasotako baliabideak, eta inbertsio berezia egiten du gaur egun sistema soziosanitarioak haurren eta nerabeen minbiziaren aurrean dituen gabezia handiagoetan; gure jarduera ezin da izan noizbait minbizia duten haur eta nerabeen eskubideak betetzea bermatuko duten baliabide publikoen banaketa zuzenaren ordezkoa.

Finantzaketa-iturri nagusiak hauek dira:

### Dohaintzak eta babesak:

Dohaintza tradizionalaz gain, sare sozialen bidezko dohaintzak eta dohaintza sistema berria ere gehitu dira aspalditik: Bizum.

### Dirulaguntzak:

Dirulaguntza publikoetatik nahiz erakunde pribatuetatik datoz, aurkezpena eta ondorengo justifikazioa behar dute.

### Bazkideen kuota:

Bazkideen aldizkako kuotak, bai eraginpeko gurasoena, bai bazkide jarraitzaileena.

### Jarduerak:

Itsulapikosolidarioak, ekitaldisolidarioak, egutegien salmenta, Gabonetako loteria eta opari solidarioak.

### Merchandising:

Produktuen salmenta: eskumuturrekoak, libretak, giltzatakoak, ponperoak, etab.


## Errekosoimenduak bermatzen gaitu

Zazpigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko izaera aitortu dio ASPANOVASi, egiten duen lana kudeatzeagatik eta Bizkaiko gizartean duen garrantziagatik.

Aitorpen horrek, besteak beste, partikularren eta enpresen dohaintzetarako onura fiskalak eskaini ditzakegula esan nahi du.

## 2022ko Balantze ekonomikoa

### SARREREN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA - 2022ko EKITALDIA



### BALIABIDEEN BANAKETA PROGRAMETAN - 2022ko EKITALDIA

